

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Herodes: boterea nola eraiki

JORDANIA, K.A. 73. URTEA. Herodes jaio zen judua ez zen familia batean. Aita Edom-eko agintaria zuen, eta ama Petra-ko printzesa nabatearra. Txikitan, basamortuan lurrazpiko leize sare konplexuak eraikitzen ikusi eta ikasi zuen. Handik aurrera, natura menperatzeko anbizioa eta boterea lortzekoa batera joan ziren Herodesengan, eraikuntzaren eskutik.

Bere helburuak erdiesteko, munduko lehen potentzia, Erroma, aliatutzat izatea ezinbestekoa zela bazekien eta, hala, K.a. 40. urtean Marko Antoniok judutarren errege izendatzea lortu zuen.

Herodion gotorlekua eraikiaraziz, bere grina muturrera eraman zuen Herodesek. Milaka tona lur mugiarazi zituen basamortu erdian mendi artifiziala sortu eta haren gainean jauregi ikusgarria eraikitzeko. Bere agintea mendi hura bezain sendoa zela erakutsi nahi zien menpekoei.

Nahiak aseta, erromatarrekiko leialtasuna erakusteko burutu zuen hurrengo obra handia. Ezerezetik hiri bat sortu zuen kostaldean Oktaviorentzat, eta haren omenez Zesarea izena ipini zion. Erromatar hirien elementu guztiak zituen, anfiteatro eta estadio eta guzti. Zesarea Mediterraneo ekialdeko merkataritza-portu garrantzitsu bihurtu zen berehala.



Goian, Herodes umeak hiltzeko agintzen. Azpian, juduen erregeak eraikiarazitako Herodion, mendi artifizial eta guzti.

Hurrena grabitateari erronka jo zion, 400 metro altu zen haitz baten gainean itzelezko zitadela eginaraziz.

Erromatarrek ordurako pozik zituelakoan, judutarren onespina lortzen saiatu zen ondoren. K.a. 576an suntsitutako Salomonen tenplua (Jerusalem) berriz altxatzea erabaki zuen horretarako. Munduko tenplurik handiena eraikitzea zuen xede. Horretarako, paisaia eraldatu zuen berriro: mendia ebaki egin zuen eta gainean 25 futbol zelaien tamainako plataforma ipini zuen, hormatzarrez inguratua. Baina ez zuen asmatu herritarren estimua inguratzen.

Halako eraikina egin, eta xehetasun txiki batek bertan behera bota zituen erregearen asmoak. Tenpluko atek arranoz apaindu zituen, eta arranoa Erromatar Inperioaren ikurra zen. Judutarren onespina irabazi nahi eta kontrakoa erdietsi zuen: erresumako herritarren matxinada piztu zuen.

Herodes hil zenean (K.a.4. urtean) Judea batua eta distiraz betea utzi zuen. Baina distirak zein batasunak atzerritar kutsua zuten, erromatar kutsua, judutarrek gorroto zutena.

Denen aurrean ondo geratu nahi eta, azkenean, Erromari berari ia itzal egin zion ondare arkitektoniko ikusgarria utzi bazuen ere, historiak haur-sarraskia burutzeagatik oroitzen du Herodes, hori benetan gertatu izanaren zantzurik inoiz topatu ez den arren.

Arrastoak

Antzinako Erroma 3D-n



GOOGLE EARTH-ek Inperio garaiko Erroman txango birtuala egiteko aukera ipini du Interneten. Milaneko, Kaliforniako eta Virginiako unibertsitateek, elkarlanean, Erromatar Inperioaren hiriburuko hiru dimentsiotako erreprodukzio fidela egin zuten, eta orain Googlek sarean jarri du. Koliseoaren eta zirkoaren gaine-

tik hegan egiteko eta hamaika eraikinen –zenbakiaren adiera zehatzean– barnealdea bisitatzeko aukera eskaintzen du. Orotara 6.600 eraikin ikus daitezke, eta 250 burbuila ipini dituzte, bisitaldiaren inguruko azalpenak emateko, <http://earth.google.com/rome> helbidean.